



AIARAKO UDALAK 2019KO URRIAREN 15EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Montse Angulo Solloa andrea

Susana Martín Benavides andrea

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

José Antonio Bartolomé Pesquera jauna

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

José Antonio Gorbea Alonso jauna

Marian Mendiguren Mendibil andrea

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzako udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemeretzi urriaren hamabosteko ordu batak eta hamabost minutu direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, M^a del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

IDAZKARIA

M^a Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak osoko bilkurara ongietorria eman die denei, eta, besterik aipatu gabe, eguneko **AZTERGAIEN ZERRENDAKO** gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira.

1^o.- Onestea, hala badagokio, 2019ko irailaren 19ko ohiko Osoko Bilkuraren akta.- Jarraian, Udalbatzari aurreko aktaren berri eman zaio, 2019ko irailaren 19ko ohiko Osoko Bilkurari dagokiona.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi duenez, aktaren 43 orrialdean honako hau jasotzen da: *“halaber, adierazi du gauza bera gertatu dela nekazaritza-plastikoen bilketarekin.”*. Nahiz eta José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunaren esku-hartzea den galderatxanden barruan, ematen du Itxaso Gorbeña Allende zinegotzi andreak esan duela.

Halaber, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du *“landa-garapeneko agentea nekazaritzatik dator”* pasarte bi aldiz agertzen dela, eta horren ordez honakoa ipini beharko litzatekeela: *“landa-garapeneko agentzia edo elkarte nekazaritzatik dator”*.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) adierazi du CAKU idazten dela, hau da, lehen letra C batekin.

Esku-hartzeak amaitu ondoren, aho batez adostu da aipatutako akta onestea.

2º.- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren luzapena, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko.- Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaió Arabako Foru Aldundiak Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena luzatzeko dokumentua igorri digula. Hitzarmen horren bitartez Eguneko Arretarako Landa Zentroaren kudeaketa- eta mantentze-lanak burutu dira 2019an.

Gizarte Osasuna, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adinekoak Informazio Batzordeak, 2019ko urriaren 8ko saioan, Udaltzaren Osoko Bilkurak erabaki hori hartzearen aldeko txostena egin zuen.

Udaltzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du aho batez:

1) Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren luzapena onestea, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko 2019an zehar. Honako hau da luzapenaren testua:

“ARABAKO FORU ALDUNDIAREN GIZARTE-ZERBITZUAK SAILAREN ETA AIARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZAZ HITZARMENAREN LUZAPENA, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROA KUDEATU ETA MANTENTZEKO

Gasteizen, 2019ko -ren (e)(a)n.

Alde batetik, Emilio Sola Ballojera jauna, Gizarte Politikak Saileko foru-diputatu, zeinak Arabako Foru Aldundia ordezkatzeko duen 2019-2013 legealdirako foru-diputatuak izendatzeko diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 325/2019 Foru Dekretuarekin eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimenari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Legean jasotako eskumenekin bat etorritik.

Bestetik, Gentza Alamillo Udaeta jauna, Aiarako Udaleko alkate-presidentea.



Alderdiek euren karguen eskumenetan oinarrituta jarduten dute, eta elkarri aitortzen diote dokumentu hau sinatzeko gaitasuna.

XEDATZEN DUTE

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Gizartea Zerbitzuak Saila eta Aiarako Udala lankidetzan ari direla 2009tik, Arespalditzako udalerriko Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzen. Azken hitzarmena 2015eko uztailaren 21ean sinatu zuten.

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluaren 2018ko abenduaren 28ko 823/2018 akordioaren bidez, Hitzarmenaren funtzionamendu-beharra dela eta jarraitutasun-soluziorik gabe, Hitzarmenaren luzapena onetsi da 2019ko ekitaldirako, eta dokumentu honen bidez zehazten da luzapen hori.

Hirugarrena. 2019ko ekitaldian eutsi egingo zaiela 2018ko ekitaldian onetsitako hitzarmenean jasotako baldintzei, exekuzioari eta gastuari dagokienez. Horregatik, dokumentu honen bidez 2015eko uztailaren 15eko Hitzarmenaren hamabosgarren klausula beteko da, zeinak zehazten baituen hitzarmena espresuki luzatuko dela.

Lauugarrena. Bi alderdiak ados daude lankidetzatresna hau eta bertan jasotako terminoak mantentzearekin, 2019ko ekitaldian programa hau garatu eta haren jarraipena egiteko baliabide moduan. Beraz, dokumentu hau sinatzea adostu dute, zeina honako klausulek arautuko duten

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Dokumentu honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuak Sailaren eta Aiarako Udalaren arteko 2015eko uztailaren 21eko lankidetzatresna hitzarmena luzatzea 2019ko abenduaren 31ra arte, Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko, zeina Udalaren eskumeneko udalerrian kokatzen den. Zentroak 10 plaza ditu guztira, aldi berean erabil daitezkeenak.

Bigarrena.- Bi alderdiek 62.963,02 (HIRUROGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU EURO ETA BI ZENTIMO) euroko zenbatekoan finkatu dute hitzarmenaren gastu-aurrekontua bertan zehaztutako indarraldirako; zentroaren kudeaketa- eta mantentze-lanei 58.750,00 (BERROGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAR) euro dagozkie, eta lokalen erabilerari 4.213,02 (LAU MILA BERREHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA BI ZENTIMO) euro.

Hitzarmenaren finantzaketa publikoa Ongizate Sozialeko Foru Institutuaren esku egongo da, eta zenbatekoak bat etorriko dira erakunde horrek indarreko 2018ko aurrekontuan onetsitakoekin, zeina



2019rako luzatuko den (1.8024.0421.250.20 "Eguneko Arretarako Landa Zentroari buruzko Hitzarmena Udalekin). Aiarako Udalak jasoko du zenbatekoa (IFK: P-010110-F), eta gehienez 50.370,42 (BERROGEITA HAMAR MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO) eurokoa izango da; halaber, ez du gaindituko likidatutako gastuaren % 80. Udalaren ekarpena gainerakoa izango da, gastu erreala osatu arte.

Hirugarrena.- Dokumentu honetan aurreikusi ez den guztiari dagokionez, alderdiek 2015eko uztailaren 21ean sinatutako hitzarmenean xedatutakoa beteko dute.

Adierazi den guztiarekin ados daudela eta hori onartzen dutela frogatzeko, bi alderdiek dokumentu hau sinatu dute, bina aletan, goiburuan adierazitako data ta tokian.

Emilio Sola Ballojera.

Gentza Alamillo Udaeta.

Gizarte Politiketako foru diputatua,

Aiarako Udalako Alkatea,

Diputado Foral de Políticas Sociales.

Alcalde del Ayuntamiento de Ayala."

2º) Alkate jaunari ahalmena ematea sinatzeko eta Arabako Foru Aldundiari bidaltzeko.

3.- Udalbatzaren Osoko Bilkuraren akten euskarria aldatzeari buruzko erabakia hartzea.- Jarraian, Udalbatzaren Osoko Bilkuraren akten euskarria aldatzeari buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da, 2019ko urriaren 3koa. Honela dio:

"UDALBATZAREN OSOKO BILKURAKO AKTEN EUSKARRIA ALDATZEARI BURUZKO ERABAKI-PROPOSAMENA

*Udal-ekintza eta -kudeaketan gardentasuna sustatzeko eta herritarrei ematen zaien egiazko informazioa askatasunez komunikatzeko eta jasotzeko eskubidea bermatzeko, eta, azken batean, udalaren giza baliabideak eta baliabide teknologikoak ahalik eta ondoen aprobetxatuz udal-jardueraren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko, Udalbatzaren Osoko Bilkurak honako **ERABAKI** hau hartzea proposatzen da:*

LEHENENGOA.- Udalbatzaren Osoko Bilkurako akten euskarri-sistema aldatzea, teknologia berrietara egokitzeko, jarraian adierazten den moduan:



- *Udalbatzaren Osoko Bilkurak egiten duen bilkura bakoitzeko, akta idatzi bat egingo da, honako hauek jasoko dituenak: bilkurara joaten diren zinegotzien identifikazioa; bertaratzen ez diren zinegotziak; bilkuraren hasiera- eta amaiera-data eta -ordua; landutako gaien enuntziatua, bozketen emaitza eta, hala badagokio, onartutako irizpen edo erabakiak.*
- *Akta hori osatzeko, Osoko Bilkuraren bileretako irudiak eta audioa bideoz grabatuko dira, osorik, hasieratik amaierara; horrela, zinegotzien esku-hartzeak oso-osorik jasoko dira euskarri bideografikoan, eta bideo-aktatzat hartuko da, grabazioa zein ordutan, minututan eta segundotan egin den identifikatuta.*
- *Ondoren, grabatutako irudiak eta audioa editatu egingo dira, egindako esku-hartzeak eta hartutako erabakiak errazago ikusteko edo haien jarraipena egiteko, eta gaitzerrenda, bozketen emaitza eta hartutako erabakiak tartekatuko dira.*
- *Grabazio horien emaitzak Udalaren webgunean eskuragarri egon beharko du.*
Une horretatik aurrera, zinegotziek eta hala nahi duten herritarrek eskuragarri izango dute bideo-aktaren eduki osoa.
- *Akta udal webgunean sartu aurretik, udal-idazkariak eta alkate-udalburuak agiri grafikoa sinatu behar dute, ziurtagiri elektronikoa bidez.*
- *Halaber, grabazioen osotasuna bermatzeko, dokumentu guztien sinadura elektronikoz gain, haien denbora zigilatuko da.*
Horrela, ez da beharrezkoa grabatzen den audioaren transkripzioa egitea, zinegotzi bakoitzak esaten duena bere irudiari lotuta geratzen baita.
- *Ondorioz, Osoko Bilkuraren akta-liburua osatzeko, bileren aktak paperean erantsiko dira, bai eta saioaren bideo-akta ere, lehen deskribatutako moduan.*
- *Bideo-akta udaletxeko zerbitzarian artxibatuko da, udal-idazkaritzan egongo den segurtasun kopia batekin.*
- *Osoko Bilkuretara aurrez aurre joan nahi duten pertsonen intimitatea behar bezala babesteko, saioaren hasieran datu pertsonalak tratatzeko baimena lortuko da, besteak beste, irudia bera, eta bilkuretara joaten den publikoari honako mezua honen bidez jakinaraziko zaio: **"saioa publikoa da, eta grabatu eta zabaltzeko da, herritarrek bertan landutako gaien berri izan dezaten. Bilerara bertaratzen direnek, publiko gisa, askatasunez egiten dute, eta ulertzen da baimena ematen dutela haietatik lortzen diren iritziak eta irudiak grabatzeko eta zabaltzeko.***

Adingabeen eskubideak babesteko, ez da baimenik emango adingabeak grabatzeko.



BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, alegazio edo erreklamazioetarako. Bat bera ere aurkezten ez bada, akordioa automatikoki onartutzat joko da, horretarako berariazko beste erabakirik hartu beharrik gabe.

HIRUGARRENA.- Indargabetuta geratzen dira udal-arau, erabaki edo xedapen guztiak, baldin eta erabaki honetan ezarritakoaren aurkakoak badira.

LAUGARRENA.- Akordio hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Arespalditzan.- ALKATEA.-Sin. Gentza Alamillo Udaeta.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA"

Kontuen Batzorde Informatibo Bereziak eta Ogasunaren, Funtzio Publikoaren eta Barne Araubidearen Batzorde Iraunkorrak, 2018ko urriaren 8an egindako bilkuran, aldeko txostena eman du, Udalbatzaren Osoko Bilkurak erabaki hori hartzeari dagokionez.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) adierazi duenez, Batzordean aipatu zen bezala, enpresari galdetu zaio ea posible izango litzatekeen euskaraz egiten diren esku-hartzeak aldi berean itzultzea streaming bidez igortzeko, eta enpresak adierazi du aldibereko itzulpena, gaur egun, ezin dutela egin, arazo teknikoak daudelako; eta grabatutakoa ediziorako itzultzen duen software bati dagokionez, aurrekontu bat eskatu daiteke, baina akta digitalaren sistematik kanpo dago.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) galdetu du ea Gipuzkoako udaletan galdetu duten.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Gasteizko Udala eta Kataluniako udaletxeren bat ikusi direla, baina enpresak esan diola udal oso handi batzuetan bakarrik egiten dela, eta, adibidez, Gasteizko Udalean esku-hartzeak egin ahala transmititzen dela. Gaineratu du, hala ere, aurrekontu bat eskatuko dela, nahiz eta ziurtatzen den dokumentu ofizial bakarra esku hartzen den hizkuntzan egindako esku-hartzeak jasotzen dituen den.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) adierazi du hori garrantzitsua iruditzen zaiola.



Udalbatzak horren berri izan du, eta honakoa adostu du, aho batez, ohiko botazioan:

LEHENENGOA.- Udalbatzaren Osoko Bilkurako akten euskarri-sistema aldatzea, teknologia berrietara egokitzeko, atxikitako proposamenean adierazi den moduan.

BIGARRENA.- Erabaki hau jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, alegazio edo erreklamazioetarako. Bat bera ere aurkezten ez bada, akordioa automatikoki onartutzat joko da, horretarako berariazko beste erabakirik hartu beharrik gabe.

HIRUGARRENA.- Indargabetuta geratzen dira udal-arau, erabaki edo xedapen guztiak, baldin eta erabaki honetan ezarritakoaren aurkakoak badira.

LAUGARRENA.- Akordio hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

4.- Kreditu gehigarriari buruzko 4/2019 espedientearen eta aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzko idazkaritza- eta kontu-hartzailtza txostenaren berri ematea.- Jarraian, Udalbatzari 2019ko urriaren 3ko 2019/464 Alkatetza Dekretuaren berri eman zaio, zeinaren bidez kreditu gehigarriari buruzko 4/2019 espedientea onesten den, 16.000,00 euroko zenbatekoarekin eta gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinarekin finantzatua.

Halaber, Udalbatzari 2019ko urriaren 3ko kontu-hartzailtza txostenaren berri eman zaio, aipatutako kreditu gehigarria finantzatzeko diruzaintza-geldikinaren erabilera dela eta aurrekontu-egonkortasunaren urratu izanaren harira. Honela dio txostenak:

KONTU-HARTZAILTZA TXOSTENA

GAIA: *Aurrekontuaren aldaketak, gastu orokorretarako diruzaintza-geldikinarekiko karguarekin.*

Aiarako Udaleko kontu-hartzailtza karguarekin lotutako funtzioetan oinarrituta eta Arabako Toki Erakundearen aurrekontu egonkortasuna eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak (17/2014 Foru Arauaren bidez aldatua) diruzaintza-geldikinaren erabilerari begira ezarritako aldaketak kontuan hartuta, zeinen bidez geldikinaren karguko kreditu-aldaketa bat onesteko beharrezkoa izango den Udalbatzaren Osoko Bilkurari kontu-hartzailtza txosten bat jakinaraztea egonkortasun-helburuaren urraketa egiaztatuz, honako txosten hau igortzen da, bi eranskinez osatua:

- I. eranskina: geldikina hainbat kreditu gautzeko erabiltzeko proposamena.
- II. eranskina: diruzaintza-geldikinarekin finantzatutako gastuei begira egonkortasun-helburua betetzeko kontu-hartzailtza txostena.



I. ERANSKINA: GELDIKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA.

2018KO LIKIDAZIOKO GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZTA-GELDIKINA, ESPEDIENTE HAU BAINO LEHEN AGORTU GABEA: **285.865,12 € (gainerakoa honako espediente hauetarako erabili da: 1/2019 Espedientea, 2018an baimendutako eta ekitaldi horretan ez agortutako kreditu-geldikinak gehitzeari buruzkoa; 1/2019 Espedientea, kreditu gehigarriari buruzkoa; 2/2019 Espedientea, kreditu gehigarriari buruzkoa; eta 3/2019 Espedientea, kreditu gehigarriari buruzkoa).**

ERABILERA-PROPOSAMENA: 16.000,00 €

AKTA DIGITALAREN SISTEMA: 16.000,00 €).

ZENBATEKOA GUZTIRA: 16.000,00 €

II. ERANSKINA: IDAZKARITZA ETA KONTU-HARTZAILTZAREN TXOSTENA EGONKORTASUNAREN EZ-BETETZEAREN HARIRA

I. TXOSTENAREN OINARRIA

Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 7.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz (17/2014 Foru Arauak emandako idazkuntza), aurrekontu egonkortasunaren zein zor publikoaren helburua edo gastu-arauarena bete ezean, ekonomia eta finantza plana formulatu beharko du horiek bete ez dituen administrazioak, aribideko urtean edo hurrengoan helburuak eta gastu-araua betetzea ahalbidetuko duena.

Bestalde, foru arau horren 7.3 artikulua ezartzen du aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako geldikinen bidez finantzatutako gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordezkari kontu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaiola dena delako udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki



korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisia eta ebaluazioa ere, gutxienez honakoak jasoko dituen:

- a) Erakundearen zein haren menpeko erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren helburuak.
- b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onartzen ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.
- c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.
- d) Diruzaintzako geldikinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.
- e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.

Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, kontu hartzeko organoaren txostena eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidaliko dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa.

Epe hori pasatu bada eta Arabako Foru Aldundiak esanbidezko ebazpena eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahalko da.

EREMU SUBJEKTIBOA:

Txosten honen helburua da aztertzea Aiarako Udalaren egonkortasun eza, zeina sortu den aurrekontu aldaketa (txosten hau aldaketaren espedientearen zati da) diruzaintzako geldikinen bidez finantzatzeagatik.

HELBURUAK:



Proposatutako aurrekontu aldaketa diruzaintzako geldikinen bidez finantzatzeak egonkortasun printzipioa urratzen du; dena den, ez-betetze hori ez da egiturazkoa, koiunturala baizik.

Beraz, aurrekontu magnitudeak aztertu behar dira. Hain zuzen ere, txosten honekin helburu hauek egiaztatu nahi dira:

- Aurrezki garbirik badagoen
- Diruzaintzako geldikinik badagoen
- Zorpetze bateratuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa den
- Aurrekontu egonkortasun bateratuak superabita edo finantzaketa ahalmena agertzen duen (KESen arabera)
- Gastu-araua betetzen den

Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak, Arabako toki erakundeen aurrekontu egonkortasun eta finantza iraunkortasunarenak, 7. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz (17/2014 Foru Arauak emandako idazkuntza), hauxe izango da txostenaren egitura:

1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen **aurrekontu-egonkortasunaren helburuen** betetzea edo ez-betetzea aztertuko da.

2.- **Diru-sarrera eta gastuen egoeren proiektzioak**

3.- Inbertsioaren funtzionamenduak ekarriko duen **gastu korrontearen eragina.**

EGUNGO EGOERAREN EKONOMIA ETA FINANTZA DIAGNOSTIKOA: AURREKONTU EGONKORTASUNAREN HELBURUAK

Onartutako azken likidazioko datuetatik (2018ko ekitaldia), honako hauek nabarmenduko ditugu:

MAGNITUDEA	ZENBATEKOA	BETETZEA / EZ-BETETZEA
-------------------	-------------------	-------------------------------



Aurrezki garbi doitua	553.209,91 €	POSITIBOA
Gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina	588.263,66 €	POSITIBOA
Aurrekontu-emaiza	328.072,03 €	POSITIBOA
Zorpetze-maila	0	
Aurrekontu-egonkortasuna	302.088,60	SUPERABITA BETETZEA
Gastu-araua	-122.672,80 €	-4% BETETZEA

II. DIRU-SARRERA ETA GASTUEN EGOEREN PROIEKZIOAK.

Ekonomia eta finantza planeko zifrak aldi honetarako proiektatzea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehatz definitzeko, EGOERA hau hartu dugu abiapuntutzat:

- Susperraldi ekonomikoko egoera batetik abiatzen gara, eta horrek toki-erakundeko jarduera mantentzea edo areagotzea ekarriko du. Ondorioz, tokiko diru-sarrerak hobetuko dira, bereziki Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean (TEFFF edo FOFEL) izandako parte-hartzean lortutakoak. Horrekin batera, zerbitzu publikoen prestazioa ere areagotu egingo da.
- Gastuei bagagozkie, murrizketekin jarraituko da, bai langile gastuetan bai bestelakoetan. Murrizketa horien atzean daude estatuaren aurrekontu orokorren legeak eta aurrekontu egonkortasuna lortzeko ezarritako murrizketak (gastu-araua, gastu-muga, egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna).

MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA.

Jarraian xehatuko da adierazitako ekitaldietan aztertutako magnitudeen eboluzioa:

HELBURUAK	2.017	2.018
------------------	--------------	--------------



Aurrekontu-egonkortasuna	167.278,99	302.088,60
Egonkortasun/Diru-sarrera ez-finantzario %	% 7,14	% 12,64
Gastu-araua	81.368,53	-122.672,80
Zorpetzea	0	0
Aurrezki garbi doitua	306.668,44	553.209,91
Aurrezki garbi/Diru-sarrera korrante %	% 14,19	% 24,90
DIRUZAINZAKO GELDIKINA	550.133,56	588.263,66

III. AURREKONTU ETA FINANTZEN EGOERA DIRUZAINZAKO GELDIKINA AGORTZERA KOAN.

III-C.1 DIRUZAINZAKO GELDIKINA.

Diruzaintzako geldikin positiboak erakundearen epe laburreko guztizko likidezia metatua islatzen du, une jakin batekoa, erabilgarri dagoena etorkizun hurbilean gastuak finantzatzeko.

Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin doitua.

Gastu orokorretarako geldikina aurrekontuari aplikatzeke dauden hornitzaileen datuekin eta ordaintzeke dauden diru sarreren itzulketekin doitzen da, eta horrek magnitude honen egoeraren ikuspegi errealagoa eskaintzen digu. Magnitude honek toki erakundearen epe laburreko benetako likideziaren berri ematen digu.

III-C.2 AURREZKI GARBIA.

Aurrezki garbiak erakusten digu zein den erakundearen zorpetze ahalmena. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du ahalmenik epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko. Aurrezki garbia positiboa izanez gero, erakundeak epe luzerako mailegu eragiketa berriei aurre egiteko zer ahalmen duen jakingo dugu, bai eta eragiketa horiek zein zenbaterekin eta baldintzarekin hitzar ditzakeen ere. Dena dela, magnitude honek erakundearen zorpetze ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa ematea nahi badugu, foru arauak ezarritakoaren



arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzakete, aparteko diru sarrerak eta errepikatzen ez direnak kenduz.

III-C.3 FINANTZA ERAKUNDEEKIN EGINDAKO ZORRA.

Zor bizia erakundearen finantza kaudimena ebaluatzeko adierazle garrantzitsua da. Kaudimen arazoak gehiegizko zorpetzeagatik sor daitezke, zeinek finantza karga handitzea dakarren. Horri gainerako gastu arrunta gehitzen bazaio, ezinezkoa egiten da arazoak erakundearen diru sarrera arrunten bidez xurgatzea eta, beraz, aurrezki garbia negatiboa izango da.

III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA.

Aurrekontu egonkortasunaren bidez, erakundearen finantzaketa ahalmena / beharra ezagutuko dugu. Egonkortasunak zeharka berekin dakar zorpetzeari mugak jartzea, urtero amortizatzen den zenbatekotik gora (KES 95en arabera kalkulatu) handitu ez dadin. Erakundeak finantzaketa beharra badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru sarrera ez-finantzarioek baino gehiago egiten badute, erakundeak kanpoko finantzaketa beharko du (zorpetzea) gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzaketa ahalmena badauka, hau da, bere gastu ez-finantzarioek diru sarrera ez-finantzarioek baino gutxiago egiten badute, horixe izango da erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen marjina.

III-C.5 GASTU-ARAU.

Gastu-araua zera da: zerga arau bat, gastu konputagarria mugatzeko xedea duena. Hartara gastu hori, ekitaldi ekonomiko batetik bestera, ez da handituko aurrekontu ekitaldi bakoitzerako onartutako ehuneko baido gehiago. Hori horrela, aurrezki publikoa areagotzea lortuko da eta mugatu egingo da gastu gehikuntza, baldin eta horrekin batera ez badago ezarrita dirubilketa areagotzeko neurri osagarririk. Magnitude hori zehazteko, 2018ko aurrekontuaren likidazioa erabiliko da.

III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERARI BURUZKO ONDORIOAK

Gastuen eta diru-sarreraren egoerari buruzko ataletan aztertutako datuei dagokienez, aurreikusten da diruzaintza-geldikinarekin finantzaturako aurrekontu-aldaketaren finantzaketa **ez**



dela egiturazko desoreka erakunde honentzat, baizik eta koitunturazkoa. Beraz, urtebetean ezarritako helburuak bete dira, Plan Ekonomiko Finantzario bat formulatu beharrik gabe.

IV. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA.

Datozen ekitaldietarako dauzkagun proiektzioak kontuan hartuta, aurrezki arrunt garbia positiboa izango dela uste dugu. Hortaz, aurrekontu aldaketa honen bidez finantzatuko den gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz etorkizunean sor daitekeen gastu arrunta erakundearen diru sarrera arrunten bidez ordaindu ahalko da. Horrez gain, zorpetze ratioa aurrekontu ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dagoenez, bi datuok batera hartuz, argi dago **etorkizuneko finantza iraunkortasuna ez dagoela arriskuan.**

Gainera, kontuan hartu behar da proposatutako aldaketek ez dutela gastu korrontea areagotuko etorkizuneko ekitaldietan.

Txosten hau kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.

Udalbatzak egindako bilkuraren akta, txosten hau eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidali behar dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa.

Arespalditzan.-

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua.



Udalbatzak Kontu Hartzaitzaren 2019ko urriaren 3ko txostenaren berri izan duela adierazten du. Izan ere, 16.000,00 euroko kreditu gehigarri bat finantzatzeko gastu orokorretarako diruzaintza-geldikina erabili da, eta horrek aurrekontu-egonkortasuna urratu du.

5.- Hauteskunde-mahaiak osatzeko presidentek eta bokalak izendatzea, 2019ko azaroaren 10ean egingo diren hauteskunde orokorretan.-

IKUSI DA.- 2019ko irailaren 24an argitaratu dela EAOean **551/2019 Errege Dekretua, irailaren 24koa, Diputatuen Kongresua eta Senatua desegiteari** eta 2019ko azaroaren 10erako hauteskundeak deitzeari buruzkoa.

IKUSI DA.- Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikulua arabera, udalei dagokiela hauteskunde-mahaiak osatzea, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeen ikuskaritzapean.

IKUSI DA.- Hauteskunde Batzorde Zentralak artikulua hori interpretatzeko doktrina finkatua ezarri duela, eta zozketa egitea Udalaren Osoko Bilkurari baino ez dagokiola adierazi duela.

AINZAT HARTU DA.- Mahai bakoitzeko lehendakaria eta kideak zozketa publiko bidez izendatuko direla, dagokion mahaiko hautesle-zerrendan dauden pertsona guztien artean.

IKUSI DA.- Aurreko guztia kontuan hartuta, aipatutako zozketa egiteari ekin zaio.

Zozketa amaitu ondoren, Udalbatzak, bertaratutako kide guztiak bat etorrita, honako hau **ERABAKI** du:

LEHENENGOA.- Mahaiburuak eta mahaikideak izendatzea (titularrak eta ordezkok), honako hauek:

– HAUTESBARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: A

MAHAIBURUA:	JOSU BELDARRAIN FUENTES
MAHAIBURUAREN LEHEN ORDEZKOA:	FERNANDO CAMINO UDAETA
MAHAIBURUAREN BIGARREN ORDEZKOA:	SERGIO BALCHADA OUTEIRAL
LEHEN BOKALA:	KARMELE BARCENA ISASI



LEHEN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA:	IZASKUN AGUIRRE UGARTE
LEHEN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA:	OLAIA BENITO ITURRALDE
BIGARREN BOKALA:	JOSE MIGUEL JORGE MURILLO
BIGARREN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA:	MIGUEL ANGEL DURANA IZAGUIRRE
BIGARREN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA:	ANDONI ARECHAGA OLABARRIA

– **HAUTESBARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: B**

MAHAIBURUA:	ITZALDE LAURA MARTINEZ EGUIA
MAHAIBURUAREN LEHEN ORDEZKOA:	ELENA MARTOS DE LAS HERAS
MAHAIBURUAREN BIGARREN ORDEZKOA:	LAURA RODRIGUEZ BROGERAS
LEHEN BOKALA:	PAZ FUENSANTA VERASTEGUI MURGA
LEHEN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA:	MARIA JOSE IDOYA URQUIJO LUENGAS
LEHEN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA:	ROSARIO M ^a MARÑON PAGAZAURTUNdua
BIGARREN BOKALA:	JUAN ANTONIO SANCHEZ JARAMILLO
BIGARREN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA:	MIRARI UDAETA GABIÑA
BIGARREN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA:	MARIA ANGELES LOPEZ SOLA

– **HAUTESBARRUTIA: 01 ATALA: 001 MAHAIA: C**

MAHAIBURUA:	JOSU MIREN ZALDIBAR HIERRO
MAHAIBURUAREN LEHEN ORDEZKOA:	MARIA TERESA CURZ ANTUÑA
MAHAIBURUAREN BIGARREN ORDEZKOA:	M. ANGELES CANIVE ASPIZUA
LEHEN BOKALA:	GARAZI ACHABAL ITURREGUI
LEHEN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA:	JESUS IGNACIO ARECHABALA ANGULO
LEHEN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA:	SILVIA GUTIERREZ MENDIVIL
BIGARREN BOKALA:	JAIME LASTAGARAY ROSALES



BIGARREN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA: PEDRO MARIA GAUNA DIEGO
BIGARREN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA: JOSE MIGUEL SARATXAGA MENOIO

– **HAUTESBARRUTIA: 01 ATALA: 002 MAHAIA: A**

MAHAIBURUA: ALFONSO GONZALEZ MACIAS
MAHAIBURUAREN LEHEN ORDEZKOA: SUSANA CAMIÑOS SUAREZ
MAHAIBURUAREN BIGARREN ORDEZKOA: JUAN MARIA ELORRIAGA URQUIZA
LEHEN BOKALA: HARITZ BERGANZA ALDAITURRIAGA
LEHEN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA: RAFAEL FERNANDEZ FERNANDEZ
LEHEN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA: MARIA ARANZAZU HERNANDEZ MORAL
BIGARREN BOKALA: ITXASO CASAUS MADERAL
BIGARREN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA: JOSE MARCOS BETES CIMAVILLA
BIGARREN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA: ANGEL VICENTE BIRZ GUTIERREZ

– **HAUTESBARRUTIA: 01 ATALA: 002 MAHAIA: B**

MAHAIBURUA: JOSEBA MIRENA URKIJO CERRO
MAHAIBURUAREN LEHEN ORDEZKOA: IKER REKETA ELUSTONDO
MAHAIBURUAREN BIGARREN ORDEZKOA: FERNANDO UGARRIZA PEREZ DEL PALOMAR
LEHEN BOKALA: FLORENCIA LOPEZ SANCHEZ
LEHEN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA: M.CONCEPCION MASSA
FOMBELLIDA
LEHEN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA: JOSE MIGUEL RODRIGHEZ FRANCO
BIGARREN BOKALA: MONICA VILCHES RUA
BIGARREN BOKALAREN LEHEN ORDEZKOA: SHEILA VERGARA BASUALDO
BIGARREN BOKALAREN BIGARREN ORDEZKOA: MARIA ELENA UDAETA OLABARRIA

BIGARRENA.- Interesdunei izendapen hori jakinaraztea.



6.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.- Jarraian, 415/2019 eta 483/2019 zenbakien artean (biak barne) dauden Alkatetza Dekretuen berri eman zaio Udalbatzari. Hauek dira, laburbilduz:

“415/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Eusko Jaurlearitzari diru-laguntza eskatzea Eskolako Agenda 21 proiekturako.

416/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Morgako zoladura- eta eraikuntza- lanak. Luiaondoko Barrena kaleko aparkalekuko obren 3. ziurtapena onartzea.

417/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Morgako zoladura- eta eraikuntza- lanak. Luiaondoko Barrena kaleko aparkalekuko obren 2. ziurtapena onartzea.

418/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Fakturen kontabilitate-zerrenda onartzea (F/2018/12).

419/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Aiarako Kuadrilla.- Gizarte-segurantzaren kostuak erregularizatzeko ekarpen ekonomikoa, artxibo-zerbitzua.

420/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Lan-kontratuko langileen nominak ordaintzea, kontratuak amaitzeagatiko azken likidazioa.

421/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Aiarako Kuadrilla.- 2018/19ko Eskualdeko Enplegu Planaren ekarpen ekonomikoa.

422/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- PM. G. D.- Arma-txartelaren emakida, 4.2. kategoria.

2019/423 ALKATETZA DEKRETUA.- P.J.I.I. 2018ko hiriko OHZren ordainagiriak itzultzea bidegabeko kobrantzagatik.

424/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Alday Fundazioa.- Gastuen justifikazioaren ordainketa onartzea, 2019ko abuztua.

425/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- M.J.I.I. 2018ko hiriko OHZren ordainagiriak itzultzea bidegabeko kobrantzagatik.

426/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Menoyo Gochiren Eraikuntzak 2017,S.L.- Zuhatzako Plan Partzialaren Urbanizazio Proiektua onartzeko dokumentazio gehigarria eskatuz.

427/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- G.S.Q.- Sojoko estalkia birgaitzeko obra-lizentzia ematea.

428/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Acciona Green Energy, S.L.U.- Jabari publikoa erabiltzeagatiko eta okupatzeagatiko tasa, 2019ko 1. eta 2. hiruilekoak.

429/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Luiaondoko J.A.-Eskola zaharretan biltegirako lokala egokitzeko obra-lizentzia ematea.

430/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Lujoko J.A.- Hondakinak kudeatzeko fidantzaren eskaera, urak banatzeko sarea berritzeko obra-lizentzia emateko.

431/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Elkarkidetza Pentsioak-2019ko iraileko faktura onartzea.



432/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- E.I.M.- Izorian baserriko estalkia birgaitzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

433/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- M.S.C.P. Aparkatzeko txartela ematea.

434/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- JM.Z.L.- Obra lizentzia ematea etxebizitzako sarrera hormigoiztatzeko (Aspitxueta auzoa 18, Murga).

435/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- ESKUTXI AHOTSAK AIARAKO EMAKUMEEN TALDEA - Frogatutzat jotzea 2018ko diru-laguntzaren justifikazioaren ez-betetze partziala eta diru-laguntza horren zati bat ordaintzea.

436/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- VALLE DE LLANTENO ELKARTE KULTURAL ETA ARTISTIKOA - Frogatutzat jotzea 2018ko diru-laguntzaren justifikazioaren ez-betetze partziala eta diru-laguntza horren zati bat ordaintzea.

437/2019 ALKATETZA DEKRETUA.-Costerako J.A.-Costeran argiteria publikoko sarea hobetzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.

438/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- JM^a.P.E.- Luiaondoko lokal batean ate metalikoa jartzeko obra-lizentzia ematea.

439/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Llantenoko J.A.- Llantenon aisialdirako gunea egokitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

440/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- J.V.C. Aparkatzeko txartela ematea.

441/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- N.L.E.- Izorian etxebizitza lehen aldiz okupatzeko BEHIN-BEHINEKO lizentzia ematea.

442/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- N.L. E.- Izorian lursaila bereizteko lizentzia ematea, jabetza-erregistroko dokumentazioa aurkeztearen baldintzapean.

443/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- JJ. C.E.- Betogin behi-ganadurako ukuilu bat egiteko obra-lizentzia eskaria izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatu zaio.

444/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- 2019ko iraileko ordainsarien hileroko txostena onartzea.

445/2019 ALKATETZA DEKRETUA.-M.D. S.- 4. kategoriako arma-txartela ematea.

446/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- AMA BIRJINA ZURIA - Frogatutzat jotzea 2018ko diru-laguntzaren justifikazioaren ez-betetze partziala eta diru-laguntza horren zati baten ordainketa.

447/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- M.M. C. - Obretarako udal lizentzia ematea Erbin dagoen baserri bateko estalkia konpontzeko.



448/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- A.A. A.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrak aurkeztutako obra-lizentzia eskatzeko espedientea jendaurrean jartzea.

449/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Ekarpen ekonomikoa partidu politikoei (EAJ eta Aiara Batuz), 2019ko iraila.

450/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Etxaurren ikastola. Bi urteko gelako talde psikopedagogikoaren eta laguntzailearen nominen abonua, 2019ko iraila.

451/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- TG. Gizarte Segurantza. 2019ko abuztuko kuota ordaintzea.

452/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- U. A. eta M. B.-ren arteko ezkontza zibila egiteko alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzea.

453/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- S. C. eta O. U.-ren arteko ezkontza zibila egiteko alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzea.

454/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- ZANDESA SA-Llantenon lur-betelana egiteko hirigintza-ordenako lehengoratzeko espedientea ebazteko dokumentazioa aurkez dezan eskatu zaio.

455/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- M.P. B. A.- Aparkatzeko txartela aldatzea aurrekoa galdu delako.

466/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- JP. D. B.- Informazio publikorako sarbidea, Lantenoko Administrazio Batzarrak industrialdeko 1493 lursailean egindako obren espedientea.

457/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Korporatiboei ekarpen ekonomikoa egitea, 2019ko iraila.

458/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Diru-laguntzen deialdian laguntza eskatzea Airako Udalak eskuragarritasuna izan dezan.

459/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- M.B. A.- Lursaila ixteko horma egiteko obra-lizentziarako dokumentazio gehigarria eskatu zaio.

460/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Llantenoko LEDen luminariak ordezteko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zaio.



461/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Llantenoko hilerrirako sarbidea zolatzeko eta ura gordetzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zaio.

462/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- MI. C. F.- Arespalditzako etxebizitzan leihoak ordeztzeko obra-lizentziarako dokumentazio gehigarria eskatu zaio.

463/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Berganza S.C.- Kexaako zolata kanalizatzeko eta konpontzeko obrako udal-lizentzia ematea.

464/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- 4/2019 kreditu gehigarriaren espedientea onestea.

465/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- F/2019/13 fakturen kontabilitate-zerrenda onartzea.

466/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Maroñoko Administrazio Batzarra.- Maroñoko argiztatze publikoan LEDen luminariak ordeztzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zaio.

467/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Agiñagako Administrazio Batzarra.- Agiñagako argiteria publikoan LED luminaria aldatzeko obretarako udal-lizentzia eman da.

468/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Y.A. U.- Luiaondoko San Lorenzo kaleko 6. zenbakian bainugela berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

469/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Goiener S.Coop. - Jabari publikoaren okupazio-tasaren likidazioa, 3. hiruilekoa.

470/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- NED SUMINISTRO GLP SAU- Jabari publikoaren okupazio-tasaren likidazioa, 3. hiruilekoa.

471/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Costerako Administrazio Batzarra.- Costerako argiteria publikoko sarea berritzeko obra-lizentzia ematea.

472/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- 2018an kiroldegietako kuotak ordaintzeko emandako eta ukatutako diru-laguntzen ebazpena.



473/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Luxoko Administrazio Batzarra.- Luxon ura banatzeko sarea berritzeko obra-lizentzia ematea.

474/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Telefónica Móviles España SA- Menoion Telefonicaren oinarrizko geltokia instalatzeko obra-lizentzia ematea.

475/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Nortegas Energía Distribución SAU -Jabari publikoaren okupazio-tasaren likidazioa, 3. hiruilekoa.

476/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Y.G. O.- Maroñoko Urizar auzoko 2 bis zenbakian etxebizitza-estaldura konpontzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

477/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Luxoko Administrazio Batzarra.- Erbi eta Luxo arteko landa-bidea (Luxoko tartea) egokitzeko eta zolatzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatu zitzaion.

478/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- J.U. S.- Ibilgailuak aparkatzeko txartela berritzea.

479/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Asfaltados y Constr. Morga. Luiaondoko Barrena kaleko mugikortasuna hobetzeko obraren 4. ziurtagiria onartzea.

480/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Soxoko Administrazio Batzarra.- Soxoko bolatokia estaltzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatu du.

481/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- 2019ko zaborra biltzeko tasaren zerga-errola onartzea.

482/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- Zuhatzako Administrazio Batzarrak aurkeztutako errekurtsioa baliogabetzea, Menoyo Gochiren eraikuntzak, SL enpresari lurak biltzeko obra-lizentzia emateko 2019/280 Alkatetza Dekretuaren aurkakoa.

483/2019 ALKATETZA DEKRETUA.- F/2019/14 fakturen kontabilitate-zerrenda onartzea.”

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara BATUZ), zenbait dekreturi buruz, galdetu du ea argiteria publikoa aldatzeko administrazio-batzarren obren kasuan, fokua aldatu besterik ez denean, txosten sektorialak eskatuko diren, bai URArenek bai errepedeenak. URAK arazoak jarri zituen kasu bat gogoratzen duelako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du ezin diola esan, baina dekretuei begiratu beharko litzaiekeela.



Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara BATUZ), 2019/456 Dekretuari dagokionez, adierazi du akats bat dagoela zerrrendako dekretuaren deskribapenean, ez delako Lantenoko Administrazio Batzarrak egindako obra bat.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) Zandesaren 454 Dekretuak aipatzen duena galdetu du. Erantzun zaio teknikariak dokumentazio gehigarria eskatu duela, hirigintza-ordena lehengoratzeko administrazio-espeditentari dagokionez.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) adierazi du, 426/2019 Dekretuari dagokionez, Zuhatzako Plan Partzialaren Urbanizazio Proiektuaren dokumentazio gehigarria eskatzeari buruzkoa, haiek ez dutela urbanizazio proiektua ikusi, eta dekretuaren bidez ari direla horren berri izaten. Erantzun zaio dekretu horretan bertan adierazten dela proiektuak apirileko data duela, eta, beraz, litekeena dela Udalbatza berria oraindik Udalean ez zegoenean aurkeztea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, hala ere, ez dagoela inolako arazorik espediente osoa ikus dezaten.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) adierazi du proiektua ez dela Batzordera ekarri, eta sakonera duen gaia izanik, gardentasun falta dagoela iruditzen zaiela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du edozein proiekturekin bezala, sarrera duenean, udal-teknikariei bidaltzen zaiela, berrikus dezaten eta azter dezaten ea zuzena den edo dokumentazio osagarriren bat behar den. Horrez gain, azaldu du ezin dela sartu Batzordean eztabaidatzeko proiektu bat, oraindik ez dakigunean hirigintza-araudia betetzen duen ala ez. Gaineratu du hori ez dela inolako gardentasun falta, baizik eta Aiarako edozein obrarekin jarraitzen den prozedura dela, eta jakinaren gainean dagoenean inolako arazorik gabe eramango dela Batzordera.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) adierazi du arazoa dela alde zuretik ez zaiela informaziorik ematen, eta berdin gertatzen dela Garabillarekin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du edozein espeditentarako sarbidea eska dezaketela.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du arazorik gabe ematen dela eskatzen den informazioa, baina zehaztu behar dutela zer espediente kontsultatu nahi duten.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) azaldu du, hasiera batean, Garabillako eta Zuhatzako espeditenteak interesatzen zaizkiela, eta dagokion eskaera egingo dutela.

472/2019 Dekretuari dagokionez, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH-BILDU) Kiroldegietarako diru laguntzak emateari baietz edo ezetz esateko oinarririk ba ote dagoen galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du osoko bilkuran onartutako oinarrien arabera egingo dela.

Esku-hartzeak bukatuta, korporazioa jakinaren gainean geratu da.



15º.- Galde-eskeak.-

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak(AIARA-BATUZ), honako galdera hauek egin ditu:

➤ **Aiaran zuntz optikoa jartzeko prozesuari buruz galdetu du.**

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du e-mail bat bidali zaiola ASiri, bera baita Euskal Autonomia Erkidegoan lan horretaz arduratzen den enpresa, eta erantzunaren zain dago. Erantzuna jaso bezain laster, jakinarazi egingo da.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du "euskadibandazabala" web orri bat dagoela, jarraitzen den prozesua, organismo arduradunak... erakusten dituenak.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) adierazi du herri berean ere aldeak daudela etxeen artean.

➤ **Zuhatzako Plan Partzialari dagokionez,** adierazi du bi dekretu daudela ikusi dutela, bata urbanizazio proiektuari buruzkoa eta bestea berraztertze errekurtsoari buruzkoa, eta galdetu du ea zuzenean jarri diren harremanetan Administrazio Batzarrekin; izan ere, akordioak jakinarazi zaizkiela jakin arren, gaia mingarria dela uste dute, eta kontaktu zuzena egon behar zela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du txostena ebazpenerako eduki arte itxaron dela, eta orain prest dagoela, haiekin harremanetan jarriko dela.

Iratxe Parro Uzquianok (AIARA-BATUZ) azaldu du gai delikatuaren denez, hurbilketa bat beharrezkoa dela uste dutela, ezer egiterik ez badago ere, eta ez soilik kontaktu bat dekretu baten jakinarazpenaren bidez.

➤ **Administrazio Batzarrekin egin beharreko bilerari dagokionez,** ohar bat egin nahi du. Bere ustez, bilera horietara Udalaren jarrera osotasunean azaldu behar da; izan ere, talde politikoaren artean eztabaida sortzen bada, lehendakari batzuk deseroso sentitzen dira, Udalaren eztabaida baten erdian. Gaineratu du, nolana ere, eztabaida egon behar bada, alde aurretik ohartarazi ere egin behar dela, zer gertatuko den jakin dadin.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du erabat ados dagoela Iratxe Parro Uzquianoren (AIARA-BATUZ) gogoetarekin; izan ere, eztabaidak batzordeen forora eraman behar dira, han landu behar baitira.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-Bildu) esan du berari buruz ari bada, Udaleko zinegotzia eta Lantenoko Administrazio Batzarreko kidea dela, eta iritzia trukatu besterik ez zirela egin, eta bakoitzak bere adierazteko modua duela. Gainera, adierazi du ez zegoela gai-zerrendarik.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) adierazi du gai-zerrenda zegoela.



Iratxe Parro Uzquianok zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du, adibidez, uraren klorazioaren gaiarekin, aldez aurretik hemen eztabaidatu behar dela, nahiz eta geroago gaia administrazio-batzarretara eraman eta eztabaida piztu, hala badagokio.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-Bildu) adierazi du hori haren iritzia dela, eta bera ez datorrela bat, uste baitu jende guztiak izan behar duela gertatzen ari denaren berri.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du berak ere uste duela gai guztiak aztertu behar direla, eta beti eskatu izan dela parte hartzea, baina egoera deserosoak saihestea dela kontua.

- **Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du gobernu-taldeak gainerako taldeetako zinegotziei helarazten zaien informazioa zaindu behar duela.** Azaldu du Foru Diputatua etorri zenean, garraioaren gaiari dagokionez, galdetu ziela ea zerbait aztertu zen azken bileratik, eta ea zerbait pentsatu zen garraioa pertsona batek egiteko aukerari buruz. Gentza Alamillo Udaeta alkateak (EAJ-PNV) erantzun zuen haiek ez zirela oso aldekoak. Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak adierazi du udal talde gisa ez zekitela zertaz ari zen. Horrez gain, adierazi du iraileko Batzordean gaia jorratu zenean, bakarrik adierazi zela bloke bat ezin izan zela esleitu hutsik geratu zelako, baina ez zela gehiago esan.

Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aldundiak ideia hori abiarazi zuela, baina oraindik ere ez zekitela oinarri sendorik ote zuen ezartzeko aukerari dagokionez, eta bigarren lanpostu hutsa bete arte ez zirela jakinarazi aukera hori baloratzen ari zirela. Gaineratu du berari helarazi ziotenean, ez zegoela hori egiteko bermerik, eta oraindik ez dutela argi uste du, taxien lehia eta abar bezalako gaiak direla eta. Amaitzeko, adierazi du gai horri buruz oraindik ez dagoela informatzeko moduan, ez guk, baina ezta Aldundiak ere.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) adierazi du informazioa emateko oinarri bat egon behar dela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) uste du, ideia bat ematea nahikoa litzatekeela jakinarazi ahal izateko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andrearen (EH-Bildu) ustez, garraioaren gaiari oraindik beste buelta bat eman beharko litzaioke, proposatutako irtenbideek ez dutelako mugikortasun arazoa konpontzen, eta ibilgailu propioa behar delako oraindik.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du bileran Aldundiak ideiak jakinarazteko eskatu zuela, urtea amaitu baino lehen martxan nola jar zitekeen ikusteko, eta posta elektronikoko bat eman zutela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA-BATUZ) adierazi du Administrazio Batzar batzuek jada egin dituztela ekarpenak.

Karmele Población Martínez zinegotzi andrearen (EH-Bildu) ustez, oinarriko arazoa ez da autobus batekin konpontzen.



Karmeke Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) honako eskari eta galdera hauek egin ditu:

- ✓ **Euskara ikasten ari diren pertsonen** matrikularen% 100eko diru-laguntza jaso ahal izatea, eskubide bat delako.
Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV), gai horri dagokionez, erantzun du esan zela orain ditugun emakida-oinarriak direla, Udalbatzak onartuak.

- ✓ **Genero-indarkeriaren aurkako planei dagokienez**, adierazi du batzuetan zaila dela tratu txarrak antzematea, eta, horregatik, uste du Berdintasunaren alorretik gehiago sakondu daitekeela horretan, eta pixka bat hobetu daitekeela eremuaren plangintza.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du Kuadrillako Berdintasun Sailak baduela jada genero-indarkeriaren aurkako plana, baina taldeek ere proposamen zehatzak egin behar dituztela, elkarrekin lan egiteko.

- ✓ **Zuhatzako Plan Partzialaren gaiari dagokionez**, adierazi du ados dagoela Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andrearekin, arazoa gertutik ezagutzeko hara hurbildu behar direla, kontzejura joan behar dutela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du, Administrazio Batzarrarekin biltzeko aukera alde batera utzi gabe, bere idazkiei erantzun zaiela.

Karmeke Población Martínezek zinegotzi andreak (EH-Bildu) azaldu du arazoa dela Plan Partzial bat onartu zela, jendeak horren berri izan gabe, eta ez zuela hori gauzatzeko eperik finkatu ere egin. Herri baten bizitza betirako baldintzatzen duten erabakiak hartzen direla gaineratu du, eta garrantzitsua dela erabaki hori noiz eta nola hartu zen jakitea, berriro gerta ez dadin.

- ✓ Karmeke Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) galdetu du ea Zandesako filtrazioa gertatu zen lekuan edateko ura pasatzen zen.

Iratxe Parro Uzquiano andreak adierazi du izan daitekeela, baina ez dagoela ziur.

Karmeke Población Martínez zinegotzi andreak (EH-Bildu) galdetu du ea zein den Udalaren jokabidea zentzu horretan.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du dagokion izapideak egiten ari direla, baina espedientearen alderdi batzuk ez daudela gure esku. Gaineratu du lurzorua kalitatearen espedientea Eusko Jaurlaritzaren mende dagoela, eta Zandesak Eusko Jaurlaritzak eskatzen dizkion errekerimenduak bete behar dituela. Azaldu du, hala ere, gai hori oso tekniko dela, arkitektoak hobeto azal dezakeela, eta, horretarako, gai hori hurrengo batzordera eramango dela.

José Antonio Gorbea Alonso zinegotzi jaunak (EH-Bildu) galdetu du ea Udalbatzako talde guztiek eska diezaieketen txostena udal-teknikariei edo idazkariari.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du teknikarien eta juridikoen txostenak dagoeneko jasota daudela eskatzen diren espedienteetan, eta kontsulta daitezkeela. Hala



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

ere, zehazki bat eskatzen bada, kanpoko zerbitzu juridikoei eskatu zitzaien ehiza-barrutiaren kasuan bezala eskatzen da.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburuak amaitutzat eman du bilkura, hamalauak eta hogeita zortzi direnean, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede ematen dut. Arespalditzan, bi mila eta hemeretziko urriaren hamabostean.

O. E.
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Gentza Alamillo Udaet

Sin.: M^a Del Carmen Rojo Pitillas